

15. ORDENANTZA FISKALA, ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUARI DAGOZKION TASAK ARAUTZEN DITUENA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak etxez-etxeoko laguntza zerbitzua emateagatik tasak ezarri eta eskatuko ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

2. ARTIKULUA

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. ARTIKULUA

Ondorengo hau da zergagaia: udal administrazioak etxez-etxeoko laguntza zerbitzua ematea edo gauzatzea, horretarako norbaitek egindako eskariari erantzunez, edo norbanakoen egite edo ez egiteak zeharka eraginda.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. ARTIKULUA

Ondorengo hauek dira, zergadun moduan, tasa honen subjektu pasiboak: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 34. eta 35. artikuluan aipatzen dituen erakundeak, aipatutako zerbitzuak eskatuz gero, edota zerbitzuen onuradun edo zerbitzuak ukitutakoak izanez gero.

5. ARTIKULUA

Ordenantza honek araututako tasak ordaindu beharra izango dute udalaren etxez-etxeoko laguntza zerbitzuko jardueren edo zerbitzuen onuradunek.

IV. ZERGA OINARRIA

6. ARTIKULUA

Zerbitzua gauzatzeko unitate bakoitza da zerga-oinarria, tarifan azaldutakoaren arabera.

V. KUOTA

7. ARTIKULUA

Zerga-oinarriari dagokion tarifa aplikatuz finkatuko da kuota.

VI. SORTZAPENA

8. ARTIKULUA

Zerbitzua edo ekintza gauzatzen den unean sortuko da tasa.

VII. LIKIDAZIOA ETA SARRERA

9. ARTIKULUA

Udal administrazioak bidezko den likidazioa luzatuko du eta Udalaren kontuan sartuko da dagokion zenbatekoa.

VIII. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

IX. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

ERANSKINA

Zerbitzuaren erabiltzaileek honako tarifa hauek ordaindu beharko dituzte: Oinarrizko Udal Zerbitzu Sozialen Funtzionarmendurako Erandio Elizateko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sinatutako administrazioen arteko lankidetzaren hitzarmena aplikatuz egokitutakoak.

Oharra: Edonola ere, gutxienez ordaindu beharrekoa..... **3,00 €**